



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 13/2021 ebazpena

Recurso 10/2021 errekurtsua

KALAMAZOO PRODUCTOS DE OFICINA SLU (aurrerantzean, KALAMAZOO) enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen Foru Kontratazio Zentralaren 2021eko uztailaren 1eko akordioaren aurka, akordio horrek kanporatu egin baitzuen aipatu enpresa Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez bulegoko materialaren hornidura kontratatzekeo esparru akordioaren lizitazio prozeduratik (X21009 espediente). Horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por KALAMAZOO PRODUCTOS DE OFICINA SLU (en adelante, KALAMAZOO) contra el acuerdo de la Central de Contratación Foral de 1 de julio de 2021 por el que se la excluye del procedimiento de licitación del acuerdo marco para contratar el suministro de material de oficina a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa (expediente X21009), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Auzitegi honetako erregistro elektronikoa 2021eko uztailaren 22an aurkeztutako idazkiaren bidez, KALAMAZOOK kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako akordioaren aurka.

BIGARRENA.- 2021eko uztailaren 26an, agertutakoaren ordezkari-tza-falta zuzendu ondoren, Auzitegiak Gobernantza Departamentuari igorri zion errekurtsua, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente eta dagokion txostena eskatu zizkion (abuztuaren 4an jaso ziren).

HIRUGARRENA.- SPKLren 56.3 artikulua betetz, abuztuaren 9an MONTTE SLri (prozeduratik kanporatua izan ez zen lizitatzailerik)

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 22 de julio de 2021 KALAMAZOO interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo citado en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- Una vez subsanada la falta de acreditación de la representación del compareciente, en fecha 26 de julio el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Gobernanza y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 4 de agosto.

TERCERO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, el 9 de agosto se dio traslado del recurso a MONTTE, S.L., única licitadora no excluida, para



bakarra) helarazi zitzaion errekurtsoa, bost egun baliioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan zitzaizkion. Epea igaro ondoren, ez zuen errekurtsorik aurkeztu.

que pudiera formular alegaciones en el plazo de cinco días hábiles, transcurrido el cual no ha presentado ninguna.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Errekurtsoaren onargarritasuna

Admisibilidad del recurso

LEHENENGOA.- Xedea.

PRIMERO.- Objeto.

Bulegoko materiala hornitzea xede duen esparru akordio batetik kanporatzearen aurka jarri da errekurtsoa. Esparru akordio horren balio zenbatetsia 2.183.039 euro da.

El recurso se interpone contra la exclusión de un acuerdo marco que tiene por objeto el suministro de material de oficina con un valor estimado de 2.183.039 euros.

Beraz, errekurritutako ekintzari kontratazio arloko errekurtso berezia jar dakiok, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 b) eta 2 b) apartatuetan.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 b) y 2 b) del artículo 44 LCSP.

BIGARRENA.- Eskumena.

SEGUNDO.- Competencia.

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

HIRUGARRENA.- Epea

TERCERO.- Plazo.

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun baliioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritutako akordioa uztailaren 13an jakinarazi zela.

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo recurrido fue notificado el día 13 de julio.

LAUGARRENA.- Legitimazioa.

CUARTO.- Legitimación.

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte hartu duen lizitazio batetik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.



Auziaren mamia

BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.

2021eko ekainaren 1eko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak kontratazio espediente bat onetsi zuen, Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez bulegoko materialen hornidura ahalbidetzeko egin zen esparru akordioa egiteko. Esparru akordio hori bi sortetan banatuta zegoen: fotokopiagailurako papera (1. sorta) eta bulegoko gainerako materiala (2. sorta).

Hiru enpresek aurkeztu zituzten eskaintzak: LYRECO ESPAÑA SA, MONTTE SL eta KALAMAZOO.

Administrazio klausula partikularren agiriaren (AKPA) ezaugarrien taulako 18. atalak dio ezen, produktuen ezaugarri teknikoak baloratzeko, laginak aztertu eta probatuko direla, eta lagin horiek enpresa lizitatuak aurkeztu behar dituztela.

Zehazki, 2. sortako produktuei dagokienez, honako hau adierazten da:

“2. lotea - kontratazioaren xede diren gainerako materialak osatzen dituzten artikuluen kopuru handia dela eta, horietako batzuen laginak baino ez dira eskatuko, eta enpresek alde aurretik jakin balute artikuluen kalitatea soilik lehenetsi ez dezaten, aurkeztu beharreko laginen zerrenda jakinaraziko zaie dokumentazio administratiboa (1. artxiboa) kalifikatu ondoren lizitazioarako onartutako enpresei. Enpresek jakinarazpena jaso eta gehienez ere bi eguneko epean aurkeztu beharko dituzte eskatutako laginak. Eskatutako lagin guztiak adierazitako epean aurkeztu ez badira edo lagina eta proposamen teknikoan eskaintutako produktua bat ez badatoz, eskaintzatik kanpo geratuko dira. Lagin bakoitzak etiketa bat izango du, artikuluen kodea (ezaugarri teknikoaren agiriaren 2. eranskinean jasotako produktuen zerrendaren arabera) eta erreferentzia komertziala adierazita.”

Ekainaren 25ean, 2. artxibo elektronikoa ireki zen, eta, dokumentazioa zuzena zela egiaztatu ondoren, kontratazio mahaiak erabaki zuen teknikariei

Fondo del asunto

QUINTO.- La actuación recurrida.

Por acuerdo de 1 de junio de 2021 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro de material de oficina a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa, dividido en dos lotes: papel de fotocopidora (lote 1) y resto de material de oficina (lote 2).

Presentaron ofertas tres empresas: LYRECO ESPAÑA, S.A., MONTTE, S.L. y KALAMAZOO.

El apartado 18 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) dice que para la valoración de las características técnicas de los productos se analizarán y probarán las muestras que habrán de presentar las empresas licitadoras.

En particular, con respecto a los productos del lote 2 se indica lo siguiente:

“Lote 2 – muestras del resto de artículos: dada la gran cantidad de artículos que componen el resto de materiales objeto de la contratación, sólo se pedirán muestras de algunos de ellos y, a fin de que las empresas no conozcan de antemano y primen sólo la calidad de estos artículos, se comunicará la relación de muestras a presentar a las empresas admitidas a la licitación una vez calificada la documentación administrativa (archivo nº 1). Las empresas deberán presentar las muestras solicitadas en un plazo máximo de dos días a partir de la recepción de la notificación. La no presentación de todas las muestras solicitadas en el plazo indicado o la no coincidencia entre la muestra y el producto ofertado en la propuesta técnica será motivo de exclusión de la oferta. Cada muestra llevará una etiqueta indicando el código del artículo (de acuerdo a la relación de productos incluida en el anexo 2 del pliego de prescripciones técnicas) y la referencia comercial.”

El 25 de junio se procedió a la apertura del archivo electrónico nº 2 y, tras comprobar que la documentación era correcta, la mesa de contratación acordó remitir las proposiciones a los



proposamenak bidaltzea, azter zitzaten eta dagokion balorazio txostena egin zezaten.

Hilaren 25ean bertan (ostirala), mezu elektronikoko bat bidali zitzaion lizitatuzaileei, hirurek egun horretan bertan jaso zutena, zeinean eskatzen baitzitzaion erantsitako zerrendan adierazitako laginak entregatzeko, ekainaren 29ko 14:00ak baino lehen, Aldundiaren Jauregiko biltegian, AKPAren ezaugarrien taulako 18. atalean adierazitako oharrekin.

Ekainaren 29an, 11:52an, errekurtsogileak mezu elektronikoko hau bidali zion Kontratazio Zentraleko presidenteari:

“Honekin batera, gaur, 2021-06-29, 9:24an, gaian adierazitako lizitazioaren 2. sortarako epe barruan bidalitako laginen egiaztagiria bidaltzen dizuegu. Bidalketa CORREOS EXPRESS enpresaren bidez egin da, «Paquete 14H» entrega-zerbitzuarekin; beraz, 2021eko ekainaren 30ean jasoko duzue, 14:00ak baino lehen”.

Espedientean jasota dago laginak ekainaren 30eko 13:30ean jaso zirela Foru Aldundian.

Zerbitzu Orokorretako buruak ekainaren 30ean emandako txostenean oinarrituta, Foru Kontratazio Zentralak, uztailaren 1ean egindako bileran, erabaki zuen prozeduratik kanpo uztea KALAMAZOO errekurtsogilea eta LYRECO ESPAÑA SA.

Zehazki, errekurtsogilea 1. sortatik kanpo utzi zen aurkeztutako dokumentazioak ez zituelako betetzen preskripzio teknikoaren agirian aurreikusitako baldintzak, eta 2. sortatik, berriz, eskatutako laginak adierazitako epean aurkeztu ez zituelako. Izan ere, *“ez zuen bete baldintza agirian eskatutakoa, inola ere ezin baita onartu laginak entregatzeko aurreikusitako epean mezularitza edo garraio-agentzia baten bulego batean entregatzea, ez baita eskaintza bat aurkezteak -hala izan balitz, onar zatekeen-”.*

técnicos para su examen y emisión del correspondiente informe de valoración.

El mismo viernes día 25 se remitió a las licitadoras un correo electrónico, recibido por las tres ese mismo día, en el que se les solicitaba la entrega en el Almacén del Palacio de la Diputación de las muestras que se indicaban en la relación adjunta antes del martes 29 de junio a las 14:00 h, con las advertencias señaladas en el citado apartado 18 del cuadro de características del PCAP.

El 29 de junio, a las 11:52 horas, la recurrente remitió al presidente de la Central de Contratación un correo electrónico con el siguiente mensaje:

“les adjuntamos justificante del envío de muestras realizado hoy 29/06/2021 a las 9:24H, para el Lote 2 de la licitación indicada en el asunto y dentro del plazo solicitado. El envío ha sido realizado por CORREOS EXPRESS con servicio de entrega “Paquete 14H”, por lo que lo recibirán mañana 30/06/2021 antes de las 14H”.

Consta en el expediente que las muestras se recibieron en la Diputación Foral el 30 de junio a las 13:30 horas.

Con base en el informe emitido en fecha 30 de junio por el Jefe de Servicios Generales, la Central de Contratación Foral, en sesión celebrada el 1 de julio, acordó excluir del procedimiento a la recurrente KALAMAZOO y a LYRECO ESPAÑA, S.A.

En concreto, la recurrente fue excluida del lote 1 porque la documentación aportada no cumplía los requisitos previstos en el pliego de prescripciones técnicas (PPT), y del lote 2, por no haber presentado las muestras solicitadas en el plazo indicado, lo cual *“supone un incumplimiento de lo exigido en el pliego ya que en ningún caso puede aceptarse que la entrega en el plazo previsto para la presentación de las muestras en una oficina de una mensajería o agencia de transporte pueda considerarse como válida, ya que no se trata de la presentación de la oferta, que sí podría aceptarse”.*



Txostenaren arabera, MONTTE SLren eskaintzak betetzen zituen preskripzio teknikoak, eta bi sortetatik kanporatua izan ez zen bakarra zenez, ez zen beharrezkoa izan puntuatzea.

SEIGARRENA.- Errekurtsogilearen jarrera.

KALAMAZOOK 2. sortatik kanporatzea baino ez du aurkaratu, uste duelako laginak aurkeztean bete zuela eskatutakoa, bai epeari dagokionez, ekainaren 29ko 9:24an aurkeztu baitziren, bai lekuari dagokionez, eskatutako helbidean entregatu baitziren, posta-bulegoaren bidez, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 80.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2001eko urriaren 16ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua, APKLEO).

Errekurtsogilearen ustez, laginak eskaintzaren zati bereizezina dira, hornidura kontratuetako kaudimen teknikoaren parte baitira, SPKLren 89.1.e) artikulua arabera; balio-judizioen bidez baloratu beharreko irizpideetan, AKPAk 25 puntu ematen dizkie eskaintako produktuen ezaugarriari, eta horien balorazioa eskaintza teknikoan emandako informazioaren eta aurkeztutako laginen arabera egin behar da.

ZAZPIGARRENA.- Kontratazio organoaren jarrera.

Errekurtsoari buruz emandako txostenean, kontratazio organoak adierazten du AKPAk argi eta garbi zehazten duela laginak ezarritako epean entregatu behar direla Foru Jauregiko biltegian, eta ez du ordezkotarik gisa aurreikusten posta-bulego baten bitartez aurkeztea.

Kontratazio mahaiak ulertu zuen dokumentuak administrazio publikoetan aurkezteari buruzko lege-arauak ez direla aplikagarriak kontratazio-prozeduraren fase honetan laginak entregatzeari dagokionez (1. zenbakiko artxibo elektronikoa ireki ondoren); horregatik, 2. sortako laginak epez

Según el informe, la oferta de MONTTE, S.L. sí cumplía las prescripciones técnicas y, por ser la única que no fue excluida de ninguno de los dos lotes, no fue necesario puntuarla.

SEXTO.- Posición de la recurrente.

KALAMAZOO impugna únicamente su exclusión del lote 2 porque considera que en la presentación de muestras ha cumplido con lo solicitado, tanto en cuanto al plazo, ya que fueron presentadas el 29 de junio a las 9:24 h, como en cuanto al lugar, puesto que se entregaron en la dirección solicitada a través de oficina de Correos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 80.4 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre (RGLCAP).

Entiende que las muestras son parte integrante e inseparable de la oferta, pues forman parte de la solvencia técnica en los contratos de suministro, según el artículo 89.1.e) LCSP, y en los criterios a valorar mediante juicio de valor el PCAP otorga 25 puntos a las características de los productos ofertados, cuya valoración debe hacerse de acuerdo a la información facilitada en la oferta técnica y a las muestras presentadas.

SÉPTIMO.- Posición del órgano de contratación.

En el informe emitido acerca del recurso el órgano de contratación señala que el PCAP determina con claridad que las muestras se deben entregar en el plazo establecido en el Almacén del Palacio Foral, y no contempla como alternativa la presentación a través de una oficina de Correos.

La mesa de contratación entendió que las normas legales sobre presentación de documentos en las Administraciones públicas no son de aplicación a la entrega de muestras en esta fase del procedimiento de contratación (después de la apertura del archivo electrónico nº 1), razón por la



kanpo aurkeztu zirela ulertu zen, eta prozeduratik kanpo uztea erabaki zen.

Txostenak gaineratzen duenez, errekurtsogileak laginak entregatu zituen enpresa (CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE SA SME) ez da "posta-zerbitzu unibertsala ematea agindu zaion operadorea", 1999ko abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduak, posta-zerbitzuen prestazioa arautzen duenak, 31. artikuluan aipatzen duenaren arabera. Izan ere, operadore hori SOCIEDAD ESTATAL CORREOS y TELÉGRAFOS da; beraz, laginak posta-bulegoan aurkeztea baliozkotzat joko balitz ere, posta-zerbitzu unibertsalaren operadorea ez den beste enpresa baten bitartez bidaltzea ez litzateke onargarria izango.

Auzitegiaren oharra.

ZORTZIGARRENA.- Auzitan dagoen gaia da zehaztea ea, errekurtsogileak dioen bezala, laginak behar den moduan eta epean aurkeztu ziren ala, aitzitik, Foru Kontratazio Zentralak hartutako erabakia, errekurtsogilea prozeduratik kanpo uztekoa, berretsi egin behar den, laginak AKPA ezarritako epetik kanpo aurkeztu zirela iritzita.

Errekurtsogileak alegatu du ezarritako epearen barruan bidali zituela laginak, posta-bulego baten bidez, APKLEOren 80.4 artikularen arabera:

"Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresaburuak bidalketa posta-bulegoan noiz ezarri den justifikatu beharko du, eta kontratazio-organoari egun berean jakinarazi beharko dio eskaintza bidali dela, telexaren, faxaren edo telegramaren bidez. Posta elektronikoz ere iragarri ahal izango da, baina, azken kasu horretan, administrazio klausula partikularren agirian onartzen bada bakarrik. Posta elektronikoz bidalitako jakinarazpena baliozkoa izateko, jasota geratu beharko da behar bezala bidali eta jaso dela, datak eta komunikazioen eduki osoa, eta bidaltzailea zein hartzailea fidagarritasunez identifikatuta egon beharko dira. Kasu horretan, kopia inprimatu eta erregistratu egingo da, eta espedienteari erantsiko zaio.

cual la entrega de las muestras del lote 2 se consideró extemporánea y se decidió la exclusión.

El informe añade que la empresa en la que la recurrente hizo la entrega de las muestras, CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE, S.A., S.M.E., no ostenta la condición de "operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal", a la que se refiere el artículo 31 del Reglamento por el que se regula la prestación de los servicios postales, aprobado por Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre. Ese operador es la SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, por lo que en el caso de que se entendiera válida la presentación de las muestras en la oficina de Correos tampoco sería aceptable la remisión a través de una empresa distinta del operador del servicio postal universal.

Apreciaciones del Tribunal.

OCTAVO.- La cuestión controvertida consiste en determinar si, tal y como sostiene la recurrente, las muestras fueron presentadas en la forma y el plazo debidos, o si, por el contrario, procede confirmar el acuerdo de exclusión adoptado por la Central de Contratación Foral al considerar que las muestras se presentaron fuera del plazo establecido en el PCAP.

La recurrente alega que remitió las muestras dentro del plazo establecido a través de una oficina de Correos, conforme al artículo 80.4 RGLCAP:

"Cuando la documentación se envíe por correo, el empresario deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta mediante télex, fax o telegrama en el mismo día. También podrá anunciarse por correo electrónico, si bien en este último caso sólo si se admite en el pliego de cláusulas administrativas particulares. El envío del anuncio por correo electrónico sólo será válido si existe constancia de la transmisión y recepción, de sus fechas y del contenido íntegro de las comunicaciones y se identifica fidedignamente al remitente y al destinatario. En este supuesto, se procederá a la obtención de copia impresa y a su registro, que se incorporará al expediente.



Bi baldintza horiek betetzen ez badira, dokumentazioa ez da onartuko kontratazio organoak iragarkian adierazitako eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu.

Guztiarekin ere, esandako eguna iritsi eta hurrengo hamar egun igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, hura ez da inolaz ere onartuko.

Baldintza agiriek ez dute ezer esaten laginak aurkezteko lekuari buruz. Laginak eskatzeko posta elektronikoa adierazten da entrega Foru Jauregiko biltegian egin behar dela, baina horrek ez du eragozten laginak lehen aipatutako 80.4 artikuluan aurreikusitako moduan aurkeztea.

Ildo horretatik jo du Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak otsailaren 27ko 289/2020 Ebazpenean. Ebazpen horretan, baldintza agirietan adierazten zen laginak pertsonalki entregatu behar zitzaizkiola egoitza bateko zuzendariari, eta Auzitegiak onartu egiten du horiek postaz aurkeztea eta bidaltzea, betiere APKLEOren 80.4 artikuluan aurreikusitako baldintzak beteta.

Kasu honetan, errekurtsogileak laginak entregatzeko epea amaitu baino lehen iragarri zion kontratazio organoari laginak bidali zituela, eta frogagiri bat bidali zuen, non aurreikusitako entrega-data aipatzen zen: ekainaren 30a, asteazkena, 14:00ak baino lehen.

Kontratazio organoak argudiatzen du ezen, APKLEOren 80. artikulua aplikatu behar bada, posta-zerbitzu unibertsala emateko ardura eman zaion operadorearen bidez bidali behar dela dokumentazioa, hau da, SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS SA SME sozietatearen bidez, baina errekurtsogileak taldeko beste enpresa batean entregatu zuen dokumentazioa, CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE SA SME enpresan, alegia. Beraz, kontratazio organoaren arabera, laginak aurkezteko prozedura baliozkoa izan arren,

Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la documentación si es recibida por el órgano de contratación con posterioridad a la fecha y hora de la terminación del plazo señalado en el anuncio.

Transcurridos, no obstante, diez días siguientes a la indicada fecha sin haberse recibido la documentación, ésta no será admitida en ningún caso.

Los pliegos nada dicen sobre el lugar de presentación de las muestras. Es en el correo electrónico de petición de las muestras donde se indica que la entrega debe realizarse en el Almacén del Palacio Foral, pero esto no obsta para que pudieran presentarse en la forma prevista en el precitado artículo 80.4.

En este sentido se ha pronunciado el Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales en su Resolución 289/2020, de 27 de febrero, en la que, en un supuesto en el que los pliegos indicaban que las muestras debían entregarse personalmente al director de una residencia, el Tribunal admite su presentación y envío por correo, si bien cumpliendo los requisitos previstos en el artículo 80.4 del RGLCAP.

En nuestro caso, la recurrente anunció el envío de las muestras al órgano de contratación antes de la finalización del plazo de entrega y remitió un justificante en el que constaba como fecha prevista de entrega el miércoles 30 de junio antes de las 14 horas.

El órgano de contratación aduce que, de ser de aplicación el artículo 80 del RGLCAP, la remisión de la documentación debe hacerse a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, que es la SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A., S.M.E., pero la recurrente hizo la entrega en otra empresa del grupo, CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE S.A, S.M.E., distinta de la que ostenta la habilitación para la prestación del servicio postal universal, por lo que, aunque el procedimiento de presentación de las muestras fuera válido, tampoco sería aceptable la



ez litzateke onargarria izango beste enpresa baten bidez aurkeztea.

SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS SA SME da posta-zerbitzu unibertsala emateaz arduratzen den operadorea, eta egungo CORREOS taldearen matrizea da. Talde horretako kide dira, hain zuzen ere, Estatuko merkataritza-sozietate filial hauek: CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE SA SME, NEXEA GESTIÓN DOCUMENTAL SA SME eta CORREOS TELECOM SA SME.

SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS SA SME eta CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE SA SME sozietateak pertsona juridiko desberdinak badira ere, web orri korporatiboan <http://www.correos.es> ageri da bigarrena dela lehenengoak bere premiazko bidalketak egiteko erabiltzen duen enpresa filiala. Beraz, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak martxoaren 26ko 452/2020 Ebazpenean adierazten duenez, APKLEOren 80.4 artikulua honela interpretatu behar da: posta-bulegoetan egindako bidalketak babestu behar ditu, garraioa materialki egiten duen taldeko enpresa edozein dela ere; izan ere, bulego-sare bera erabiltzen duten enpresak dira, osorik edo zati batean, eta, funtsean, talde bereko kide direnez, posta-zerbitzu unibertsala emateaz arduratzen den Estatuko merkataritza-sozietatearen ezaugarriak dituzte.

KALAMAZOOK posta-bulegoan entregatu zituen laginak, eta egun horretan bertan jakinarazi zion kontratazio organoari bidali zituela, aurkezteko epea amaitu baino lehen, hau da, ekainaren 29ko 14:00ak baino lehen; laginak hurrengo egunean, 13:30ean, iritsi ziren Aldundira.

Ondorioz, esparru akordioaren baldintza agiriei eta APKLEOren 80.4 artikuluan xedatutakoari

presentación a través de una empresa distinta de la habilitada.

La SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A., S.M.E., es el operador responsable de prestar el servicio postal universal y es la matriz del actual grupo CORREOS, del que forman parte las sociedades mercantiles estatales filiales CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE S.A., S.M.E., NEXEA GESTIÓN DOCUMENTAL, S.A., S.M.E. y CORREOS TELECOM, S.A., S.M.E.

Aunque la SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A., S.M.E. y CORREOS EXPRESS PAQUETERÍA URGENTE, S.A., S.M.E. son personas jurídicas distintas, consta en la página web corporativa <http://www.correos.es> que la segunda es la empresa filial que la primera utiliza para llevar a cabo sus envíos urgentes, por lo que, como afirma el Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales en su Resolución 452/2020, de 26 de marzo, el artículo 80.4 del RGLCAP ha de ser interpretado de modo que ampare los envíos realizados en oficinas de Correos, con independencia de la empresa del grupo que materialmente ejecute el transporte, pues se trata de empresas que utilizan en todo o en parte la misma red de oficinas y que en el fondo, al formar parte del mismo grupo, participan de las características de la sociedad mercantil estatal encargada de la prestación del servicio postal universal.

KALAMAZOO entregó las muestras en la oficina de Correos y anunció el envío ese mismo día al órgano de contratación antes del vencimiento del plazo de presentación, esto es, antes de las 14:00 horas del día 29 de junio, y las muestras llegaron a la Diputación el día siguiente a las 13:30 horas.

En conclusión, ateniéndonos a los pliegos del acuerdo marco y a lo dispuesto en el artículo 80.4



erreparatuta, ezerk ez zuen eragozten laginak errekurtsogileak egin zuen moduan eta epean bidaltzea; beraz, alegaturiko arrazoiarengatik prozeduratik kanpo uztea baliogabetu egin behar da.

BEDERATZIGARRENA.- Beraz, bidezkoa da errekurtsoa baiestea eta prozeduran atzera egitea agintzea, Foru Kontratazio Zentralak enpresa errekurtsogilea esparru akordioaren 2. sortatik kanpo uzteko erabakia hartu aurreko unera arte, bere proposamenak baldintza agirietan eskatutako baldintza teknikoak betetzen dituen egiaztatzeko eta sorta hori adjudikatzeko prozedura izapidetzen jarraitzeko.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

Baiestea KALAMAZOO PRODUCTOS DE OFICINA SLU enpresak kontratazio arloan aurkeztutako errekurtsu berezia, eta, ondorioz, baliogabetzea errekurtsogilea 2. sortatik kanporatzeko erabakia, eta jarduketak kanporatze horren aurreko unera atzeratzea, sorta horren adjudikazio prozedurak jarrai dezan.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

del RGLCAP, nada impedía el envío de las muestras en la forma y en el plazo en que lo hizo la recurrente, por lo que su exclusión del procedimiento por la causa alegada debe ser anulada.

NOVENO.- Así pues, procede estimar el recurso y ordenar la retroacción del procedimiento al momento inmediatamente anterior a la decisión de la Central de Contratación Foral de excluir a la empresa recurrente del lote 2 del acuerdo marco, para que se proceda a verificar si su proposición cumple los requisitos técnicos exigidos por los pliegos y continúe la tramitación del procedimiento de adjudicación de dicho lote.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

Estimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por KALAMAZOO PRODUCTOS DE OFICINA SLU y, en consecuencia, anular el acuerdo de exclusión de la recurrente del lote 2 y retrotraer las actuaciones al momento anterior a dicha exclusión para que continúe el procedimiento de adjudicación de dicho lote.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2021eko urriaren 6a / San Sebastián, 6 de octubre de 2021.